

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4396

AGINDUA, 2015eko irailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hasierako Lanbide Prestakuntzako programak irakatsi dituzten ikastetxeen baimena aldatzeko dena.

Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuak hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen ditu (martxoaren 5eko BOE). Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, hezkuntza-administrazioek eskumena izango dute Hasierako Lanbide Prestakuntzako programak aurretik eman dituzten ikastetxe pribatu eta publikoei oinarrizko lanbide-titulu bat lortzera daramaten ikasketak irakasteko baimena emateko, baimen-eskaera berririk egin beharrik izan gabe, betiere titulu horrek baldin badauka ordura arte irakasten zuten Programaren lanbide-profila.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzko ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuak (ekainaren 12ko EHAA), aipatutako 127/2014 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz, lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen duenez, 2012-2013 ikasturtetik aurrera Hasierako Lanbide Prestakuntzako programak eman dituzten ikastetxeek baimena izango dute dagozkien Oinarrizko Lanbide Heziketako tituluak lortzera bideratutako irakaskuntzan jarduteko, baldin eta titulu horiek ordura arteko programen lanbide-profila barne hartzen badute.

Aipatutako xedapenean ezarritakoa aplikatze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Lanbide Heziketa irakasteko baimena duten ikastetxe pribatuen zerrenda argitaratu behar da, bai eta baimentzen zaizkien heziketa-zikloak ere, irakasten zituzten Hasierako Lanbide Prestakuntzako programen arabera.

Arau hauek ikusi dira: maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoa (maiatzaren 4ko BOE); otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituena, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituena, haien oinarrizko curriculumak finkatzen dituena eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena (martxoaren 5eko BOE); maiatzaren 16ko 356/2014 Errege Dekretua, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen dituena (maiatzaren 29ko EHAA); abuztuaren 28ko 774/2015 Errege Dekretua, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako sei titulu ezartzen dituena (abuztuaren 29ko BOE); ekainaren 9ko 86/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa (ekainaren 12ko EHAA), eta gai horretan aplikatu beharreko indarreko araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Agindu honen eranskinean argitaratzen da Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Lanbide Heziketa emateko baimena duten ikastetxe pribatuen zerrenda, 86/2015 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko.

2. artikulua.– Agindu honen eranskinean adierazten diren Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasteko baimena ematen zaie bertan ageri diren ikastetxe pribatuei.

3. artikulua.– Ikastetxeek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, agindu honen bidez baimentzen zaizkien heziketa-zikloak irakasteko eskatzen diren ikaspostuen kopuruari, ekipamenduari eta irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez.

4. artikulua.– Ikastetxeek Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko dute, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daskioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 22a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2015eko urriaren 20a, asteartea

ERANSKINA

ARABA

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO |
|--------|-------------------------------|------------------------|--------------------------------|--|--------------|
| 010254 | CPES Apostólico San José BHIP | Iruña Oka/Iruña de Oca | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 010244 | CPEIPS Paula Montal HLBHIP | Vitoria-Gasteiz | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak | Etxeko jarduerak eta eraikin garbiketa | 1 |
| 010248 | CPES Egibide BHIP | Vitoria-Gasteiz | Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-zerbitzuak | 1 |
| 010248 | CPES Egibide BHIP | Vitoria-Gasteiz | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 2 |
| 010248 | CPES Egibide BHIP | Vitoria-Gasteiz | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 2 |
| 010248 | CPES Egibide BHIP | Vitoria-Gasteiz | Ostalaritza eta Turismoa | Okintzako eta pastelgintzako jarduerak | 1 |

BIZKAIA

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO |
|--------|--|-----------|--------------------------------|--|--------------|
| 014619 | CPEIPS Ángeles Custodios Bilbao HLBHIP | Bilbao | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak | Etxeko jarduerak eta eraikin garbiketa | 1 |
| 014615 | CPES Almi BHIP | Bilbao | Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio-zerbitzuak | 1 |

2015eko urriaren 20a, asteartea

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO |
|--------|----------------------------|-----------|--|--|--------------|
| 014643 | CPES Fernando BHIP | Bilbao | Irudi Pertsonala | Ile-apainketa eta estetika | 2 |
| 014665 | CPES María Inmaculada BHIP | Bilbao | Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-zerbitzuak | 2 |
| 014665 | CPES María Inmaculada BHIP | Bilbao | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak | Etxeko jarduerak eta eraikin garbiketa | 1 |
| 014680 | CPES Otxarkoaga BHIP | Bilbao | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 2 |
| 014680 | CPES Otxarkoaga BHIP | Bilbao | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 014680 | CPES Otxarkoaga BHIP | Bilbao | Irudi Pertsonala | Ile-apainketa eta estetika | 1 |
| 014680 | CPES Otxarkoaga BHIP | Bilbao | Informatika eta Komunikazioak | Informatika eta komunikazioak | 1 |
| 014680 | CPES Otxarkoaga BHIP | Bilbao | Instalatzeko eta Mantentze-Lanak | Etxebizitzaren mantentze-lanak | 1 |
| 014680 | CPES Otxarkoaga BHIP | Bilbao | Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Arotzeria eta altzarigintza | 1 |
| 014680 | CPES Otxarkoaga BHIP | Bilbao | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-Lanak | Ibilgailuen mantentze-lanak | 2 |
| 015069 | CPES Peñasal BHIP | Bilbao | Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-zerbitzuak | 1 |
| 015069 | CPES Peñasal BHIP | Bilbao | Eraikuntza eta Obra Zibila | Eraikinak eraberritzea eta mantentzea | 1 |

2015eko urriaren 20a, asteartea

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO |
|--------|---------------------|-----------|--|--|--------------|
| 015069 | 48015839 | Bilbao | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 4 |
| 015069 | 48015839 | Bilbao | Ostalaritza eta Turismoa | Okintzako eta pastelgintzako jarduerak | 2 |
| 015069 | 48015839 | Bilbao | Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta jatetxe-arloa | 5 |
| 015069 | 48015839 | Bilbao | Elikagaien Industriak | Elikagaien industriak | 1 |
| 015069 | 48015839 | Bilbao | Instalazte eta Mantentze-Lanak | Etxebizitzen mantentze-lanak | 4 |
| 015069 | 48015839 | Bilbao | Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Arotzeria eta altzarigintza | 2 |
| 015069 | 48015839 | Bilbao | Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza | Ehunezko eta larruzko gaiak moldatzea eta konpontzea | 1 |
| 014696 | 48002638 | Bilbao | Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio-zerbitzuak | 1 |
| 014728 | 48004143 | Durango | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta Elektronika | 1 |
| 014728 | 48004143 | Durango | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 014845 | 48009918 | Loiu | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |
| 014779 | 48003631 | Muskiz | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |
| 014779 | 48003631 | Muskiz | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |

2015eko urriaren 20a, asteartea

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO |
|--------|--|-----------|--|--|--------------|
| 014779 | CPES Somorrostro BHIP | Muskiz | Irudi Pertsonala | Ile-apainketa eta estetika | 1 |
| 014779 | CPES Somorrostro BHIP | Muskiz | Instalatzeko eta Mantentze-Lanak | Etxebizitzaren mantentze-lanak | 1 |
| 014810 | CPEIPS San José de Calasanz HLBHIP | Santurtzi | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak | Etxeko jarduerak eta eraikin garbiketa | 1 |
| 014824 | CPEIPS San Viator HLBHIP | Sopuerta | Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-zerbitzuak | 1 |
| 014824 | CPEIPS San Viator HLBHIP | Sopuerta | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |
| 014824 | CPEIPS San Viator HLBHIP | Sopuerta | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 014824 | CPEIPS San Viator HLBHIP | Sopuerta | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-Lanak | Ibilgailuen mantentze-lanak | 2 |
| 014828 | CPEIPS Maristas San Miguel HLBHIP | Zalla | Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio-zerbitzuak | 1 |
| 014828 | CPEIPS Maristas San Miguel HLBHIP | Zalla | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |
| 014828 | CPEIPS Maristas San Miguel HLBHIP | Zalla | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 014723 | CPES Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia BHIP | Zeanuri | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |

2015eko urriaren 20a, asteartea

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO | |
|--------|---------------------|--|---------------|----------------------|---------------------------------|---|
| 014723 | 48003990 | CPE Arratiako Zulalibar Lanbide IKASTEGIA BHIP | Zeanuri | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |

GIPUZKOA

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO | |
|--------|---------------------|--|-----------------------------|---|---------------------------------|---|
| 012746 | 2000201 | CPEIPS La Salle Berrozpe HLBHIP | Andoain | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |
| 012345 | 20002773 | CPEIPS San Frantzisko Xabier Ikastola HLBHIP | Arrasate/Mondragón | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |
| 012345 | 20002773 | CPEIPS San Frantzisko Xabier Ikastola HLBHIP | Arrasate/Mondragón | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 012345 | 20002773 | CPEIPS San Frantzisko Xabier Ikastola HLBHIP | Arrasate/Mondragón | Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta jatetxe-arloa | 1 |
| 012345 | 20002773 | CPEIPS San Frantzisko Xabier Ikastola HLBHIP | Arrasate/Mondragón | Instalaze eta Mantentze-Lanak | Etxebizitza mantentze-lanak | 1 |
| 012516 | 20004812 | CPEIPS María Auxiliadora HLBHIP | Donostia / San Sebastián | Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak | Arotzeria eta altzarigintza | 1 |
| 012516 | 20004812 | CPEIPS María Auxiliadora HLBHIP | Donostia / San Sebastián | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-Lanak | Ibilgailuen mantentze-lanak | 1 |
| 012532 | 20004435 | CPEIPS Presentación de María HLBHIP | Donostia / San Sebastián | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta Elektronika | 1 |

2015eko urriaren 20a, asteartea

| KODEAK | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO |
|--------|--|--------------------------|--|--|--------------|
| 012532 | CPEIPS Presentación de María HLBHIP | Donostia / San Sebastián | Informatika eta Komunikazioak | Informatika eta komunikazioak | 1 |
| 012491 | CPES C.D.E.A. BHIP | Donostia / San Sebastián | Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta jatetxe-arloa | 1 |
| 012497 | CPES Cebanc BHIP | Donostia / San Sebastián | Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio-zerbitzuak | 1 |
| 012497 | CPES Cebanc BHIP | Donostia / San Sebastián | Informatika eta Komunikazioak | Informatika eta komunikazioak | 1 |
| 012517 | CPES María Inmaculada BHIP | Donostia / San Sebastián | Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-zerbitzuak | 1 |
| 012517 | CPES María Inmaculada BHIP | Donostia / San Sebastián | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak | Etxeko jarduerak eta eraikin garbiketa | 1 |
| 012529 | CPES Ortzadar BHIP | Donostia / San Sebastián | Elektrizitatea eta Elektronika | Elektrizitatea eta elektronika | 1 |
| 012529 | CPES Ortzadar BHIP | Donostia / San Sebastián | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 012529 | CPES Ortzadar BHIP | Donostia / San Sebastián | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-Lanak | Ibilgailuen mantentze-lanak | 1 |
| 012544 | CPES San Miguel-Fundación Vda. Elizaran BHIP | Donostia / San Sebastián | Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio-zerbitzuak | 1 |
| 012544 | CPES San Miguel-Fundación Vda. Elizaran BHIP | Donostia / San Sebastián | Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-zerbitzuak | 1 |

2015eko urriaren 20a, asteartea

| KODEAK | | IKASTETXEAREN IZENA | UDALERRIA | LANBIDE-ARLOA | HEZIKETA-ZIKLOA | ZENBAT ZIKLO |
|--------|----------|---|-----------|--|--|--------------|
| 013500 | 20014222 | CPES Centro de Formación Mendibil Formazio Zentroa BHIP | Irún | Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta jatetxe-arloa | 1 |
| 013500 | 20014222 | CPES Centro de Formación Mendibil Formazio Zentroa BHIP | Irún | Irudi Pertsonala | Ile-apainketa eta estetika | 1 |
| 013500 | 20014222 | CPES Centro de Formación Mendibil Formazio Zentroa BHIP | Irún | Informatika eta Komunikazioak | Informatika eta komunikazioak | 1 |
| 012581 | 20005671 | CPES Goierri BHIP | Ordizia | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 012581 | 20005671 | CPES Goierri BHIP | Ordizia | Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta jatetxe-arloa | 1 |
| 012581 | 20005671 | CPES Goierri BHIP | Ordizia | Instalazte eta Mantentze-Lanak | Etebizitzen mantentze-lanak | 1 |
| 012581 | 20005671 | CPES Goierri BHIP | Ordizia | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-Lanak | Ibilgailuen mantentze-lanak | 2 |
| 012572 | 20005270 | CPES Salesianos Urnieta BHIP | Urnieta | Arte Grafikoak | Arte grafikoak | 1 |
| 012593 | 20005956 | CPES Urola Garaiko Lanbide Eskola BHIP | Zumarraga | Fabrikazio Mekanikoa | Elementu metalikoen fabrikazioa | 1 |
| 012593 | 20005956 | CPES Urola Garaiko Lanbide Eskola BHIP | Zumarraga | Gizarte eta Kultura Zerbitzuak | Etxeko jarduerak eta eraikin garbiketa | 1 |